Bestelako Xedapenak

**JUSTIZIA ETA
HERRI ADMINISTRAZIO SAILA**

2469

AGINDUA, 2011ko apirilaren 4koa, Justizia eta Herri Administrazioko sailburuarena, «Fundación Don Francisco Yarza» fundazioaren estatutuetako 2. eta 4. artikuluetan egindako aldaketak onartu eta inskribatzeko dena.

«Fundación Don Francisco Yarza» fundazioak bere estatutuetan egindako aldaketak onartu eta inskribatzeko aurkeztutako eskabidearen espedientea ikusi eta aztertu da.

AURREKARIAK

Lehenengoa.– 2011ko martxoaren 21ean sarrera eman zaio Justizia eta Herri Administrazio Saileko Erregistroan Joaquin Oquiñena Perellók «Fundación Don Francisco Yarza» fundazioaren lehendakari gisa aurkeztutako idazkiari.

2011ko martxoaren 14an, Joaquin Oquiñena Perellók eta Graciela Margarita Imaz Petralik, Fundazioaren Patronatuko lehendakaria bata eta idazkaria bestea, Donostiako notario Guadalupe María Inmaculada Adanez Garcíaren aurrean egiletsitako eskritura publikoaren kopia eskuetsia eta fotokopia aurkeztu dira eskabidearekin batera (protokolo-zenbakia: 437).

2010eko azaroaren 11n egindako bileraren egiaztagiria erantsi zaio eskritura publikoari, Graciela Imaz Petrali Patronatuko idazkariak, Joaquin Oquiñena Perelló lehendakariaren oniritziaz egindakoa Donostian, 2010eko azaroaren 11n. Bilera horretan, besteak beste, Fundazioaren estatutuetako 2. eta 4. artikuluak aldatzea erabaki zen.

Fundazioaren estatutuetako 2. eta 4. artikuluen idazketa berria osorik jasotzen da eskrituran.

Bigarrena.– Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistro, Aholkularitza eta Kontrol Unitateko Zerbitzu Teknikoek aztertu dute espedientea eta, ondoren, ebazpen-proposamena egin dute.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.– Justizia eta Herri Administrazioko sailburuari dagokio fundazioaren estatutuen aldaketa inskribatzeko espedientea agindu bidez ebaztea. Hala ezarrita dago: Euskal Autonomia Erkidegoko Funda-

Otras Disposiciones

**DEPARTAMENTO DE JUSTICIA
Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA**

2469

ORDEN de 4 de abril de 2011, de la Consejera de Justicia y Administración Pública, por la que se aprueba e inscribe la modificación de los artículos 2 y 4 (domicilio) de los estatutos de la «Fundación Don Francisco Yarza».

Visto el expediente que la denominada «Fundación Don Francisco Yarza» presenta de aprobación e inscripción de la modificación de sus Estatutos, atendiendo a los siguientes

ANTECEDENTES DE HECHO

Primero.– En fecha 21 de marzo de 2011 ha tenido entrada en el Registro del Departamento de Justicia y Administración Pública escrito presentado por don Joaquin Oquiñena Perelló, actuando en su calidad de Presidente de la «Fundación Don Francisco Yarza».

Junto a la solicitud se ha presentado copia autorizada y fotocopia de la Escritura Pública otorgada el 14 de marzo de 2011 por don Joaquin Oquiñena Perelló y doña Graciela Margarita Imaz Petrali, Presidente y Secretaria del Patronato de la Fundación, ante la Notario de Donostia-San Sebastián, doña Guadalupe María Inmaculada Adanez García, n.º 437 de su protocolo.

La referenciada Escritura pública incorpora Certificación expedida en Donostia-San Sebastián el 11 de noviembre de 2010 por doña Graciela Imaz Petrali, en su calidad de Secretaria con el visto bueno del Presidente, don Joaquin Oquiñena Perelló de la reunión celebrada el 11 de noviembre de 2010, en la que se adoptó, entre otros, el acuerdo de modificar los artículos 2 y 4 de los Estatutos de la Fundación.

En el cuerpo de la Escritura se recoge la nueva redacción íntegra de los artículos 2 y 4 de los Estatutos Fundacionales.

Segundo.– El expediente ha sido examinado por los Servicios Técnicos de la Unidad de Registro, Asesoramiento y Control de Fundaciones del País Vasco que, a su vista, han elevado Propuesta de Resolución.

FUNDAMENTOS JURÍDICOS

Primero.– Corresponde a la Consejera de Justicia y Administración Pública dictar, mediante Orden, la resolución del expediente de inscripción de modificación estatutaria, en virtud del artículos 40 de la Ley

zioen Legeko 40. artikuluan; Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 3. artikuluan; eta, Lehendakariak 2009ko maiatzaren 8an Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzeko eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzeko eman zuen 4/2009 Dekretuaren 9.1.e) artikuluan.

Bigarrena.– Estatutuen aldaketa onartzeko eta aldaketa hori Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko espedienteari funtsezko iritzitako datu eta agiriak erantsi zaizkio, eta bereziki, hauek: Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 31. artikuluan eskatutakoak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamenduaren 44. artikuluan eskatutakoak. Azken erregelamendu hori ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren bidez onartu zen.

Aipatutako artikuluak eta aplikagarriak diren gainerako arauak ikusi dira.

Justizia eta Herri Administrazioko sailburuak hauxe

EBATZI DU:

Lehenengoa.– «Fundación Don Francisco Yarza» fundazioaren estatutuetako 2. artikuluaren (helburuak) eta 4.aren (helbidea) aldaketa onartzea.

Bigarrena.– Fundazioaren estatutuetan egindako aldaketa inskribatzeko agintzea, agindu honen datarekin, estatutuetan egindako aldaketa jasotzen den eskritura publikoan ezarritakoaren arabera. Eskritura hori 2011ko martxoaren 14an egiletsi zuten Joaquin Oquiñena Perellók eta Graciela Margarita Imaz Petralik, Fundazioaren Patronatuko lehendakari eta idazkari hurrenez hurren, Donostiako notario Guadalupe María Inmaculada Adanez Garciaren aurrean (protokolo-zenbakia: 437).

Inskripzio honen ondoren, Fundazioaren helbide sozialak Donostian (Gipuzkoa) jarraituko du, Gipuzkoa plazako 15. zenbakian (solairuartea).

Hirugarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Agindu honek administrazio-bidea amaitzen du, eta bere aurka aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke Justizia eta Herri Administrazioko sailburuari, hilabeteko epean, agindua jakinarazten den egunaren biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, bi hilabeteko epean, agindua jakinarazten den egunaren biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko apirilaren 4a.

Justizia eta Herri Administrazioko sailburua,
IDOIA MENDIA CUEVA.

de Fundaciones del País Vasco, el artículo 3 del Decreto 101/2007, de 19 de junio, por el que se aprueba el Reglamento del Registro de Fundaciones del País Vasco y el artículo 9.1.e) del Decreto 4/2009, de 8 de mayo, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos.

Segundo.– Al presente expediente de aprobación de modificación estatutaria y ulterior inscripción en el Registro de Fundaciones del País Vasco se han aportado cuantos datos y documentos se consideran esenciales, cumpliéndose especialmente los requisitos previstos en el artículo 31 de la Ley 12/1994, de 17 de junio, de Fundaciones del País Vasco, así como en el artículo 44 del Reglamento del Registro de Fundaciones del País Vasco, aprobado por el Decreto 101/2007, de 19 de junio.

Vistos los preceptos citados y demás normas de general aplicación.

La Consejera de Justicia y Administración Pública,

RESUELVE:

Primero.– Aprobar la modificación de los artículos 2 (fines) y 4 (domicilio) de los Estatutos de la «Fundación Don Francisco Yarza».

Segundo.– Ordenar la inscripción de dicha modificación estatutaria de la Fundación, con la fecha de la presente Orden, de acuerdo con lo establecido en la Escritura pública, donde consta la modificación de los artículos estatutarios otorgada el 14 de marzo de 2011, por don Joaquin Oquiñena Perelló y doña Graciela Margarita Imaz Petrali, Presidente y Secretaria del Patronato de la Fundación, ante la Notario de Donostia-San Sebastián, doña Guadalupe María Inmaculada Adanez García, n.º 437 de su protocolo.

De esta inscripción, el domicilio de la Fundación pasa a situarse en el mismo término municipal, es decir, Donostia-San Sebastián, en la Plaza de Gipuzkoa, n.º 15, entresuelo.

Tercero.– Acordar la publicación de la presente Orden en el Boletín Oficial del País Vasco.

Contra la presente Orden, que agota la vía administrativa, cabrá interponer recurso potestativo de reposición ante esta Consejera de Justicia y Administración Pública, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su notificación, o recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su notificación.

En Vitoria-Gasteiz, a 4 de abril de 2011.

La Consejera de Justicia y Administración Pública,
IDOIA MENDIA CUEVA.